

eman ta zabal zazu



UPV EHU

**HIRIA ETA GENEROA: ITXARO
BORDAREN *JALGI HADI PLAZARA***

Olatz Dorai Urritza

Hizkuntzalaritza eta Euskal ikasketak

2016-2017

Tutorea: Natalia Vara

LABURPENA

Amaia Ezpeldoi dugu Itxaro Bordaren *Jalgi hadi plazara* nobela beltzeko protagonista, euskal literaturaren historiako emakume detektibe eta lesbiana bakarra. Eleberri honek mugarri bat suposatzen du Iparraldeko detektibe ezohikoaren bizitzan, bertan onartu eta aldarrikatzen baitu lehen aldiz publikoki lesbiana izaera. Kontakizuna Isturitzeko kobazuloetan hasten bada ere, Ezpeldoik ordurako Zuberoatik Baionarako ibilbidea egin du eta esku artean duen kasu berria ikertzeko aitzakiaz, Bilbora bidaiatuko du. Bazterretik erdigunera eginiko bidaia baten aurrean gaude beraz, modernitatetik postmodernitatera egindako bidaia bat, herritik benetako hirira. Bilbon bertan ere bazterretik erdigunerako ibilbidea egingen du, lehen gaua taberna txiki batean igarotzetik azken gaua Kafe Antzokian igarotzera. Ibilbide hau izanen da Ezpeldoik biziko duen askapen-prozesuaren eragilea; Bilboko paisaia eta bere kaleak, Guggenheim museoa, Bilboko gaua, Nerbioi eta bere zubiak ...

Lan honetan, lehenik, hiria eta generoa kontzeptuak aztertuko dira teoriaren ikuspegitik, gainera bada ere, estuki lotuak daudela frogatzeko asmoz. Ondoren, nobelan murgilduko gara, *Jalgi hadi plazara*-n aurkezten zaigun hirian eta honek Ezpeldoirengan eragiten dituen aldaketetan arreta jarritz. Azkenik, nortasun lesbiarraren plazaratzea deskribatu eta espazioak pertsonaien kontzientzia eta garapen psikologikoan duen eragina agerian utziko da, generoa eta espazioa literatura lanak hobe ulertzeko ezinbesteko bi kontzeptu direla frogatuz.

Hitz-gakoak: Itxaro Borda, generoa, espazioa, hiria, Bilbo.

AURKIBIDEA

0. SARRERA.....	1
1. MARKO TEORIKOA: HIRIA ETA GENEROAREN DEFINIZIOA	2
1.1 Hiria.....	2
1.2 Generoa	4
2. NOBELAREN NONDIK NORAKOAK.....	5
3. DETEKTIBEAK NOBELAN ZEHAR EGINDAKO IBILBIDEA	6
4. BILBOKO PAISAIA	9
4.1 Bilboko kaleak eta bertatik egindako joan-etorriak	11
4.2 Bilboko gaua eta Engelblau taberna.....	13
4.3 Guggenheim museoa	14
4.4 Nerbioi ibaia eta bere zubiak.....	16
5. HIRIA EZPELDOIREN ALDAKETEN ERAGILE	18
6. IDENTITATE LESBIARRAREN PLAZARATZEA	21
7. ONDORIOAK	23
8. BIBLIOGRAFIA	24

0. SARRERA

Genero marjinal bat lantzen duen eleberria dugu esku artean, protagonista pertsonaia marjinal bat duena (Cillero, 2000). Amaia Ezpeldoi detektibeak hegemonikoki gizona koena den detektibe 'gogorraren' estereotipo guztiak azpiko gora iraultzen ditu. *Queer* pertsonaia hau, herri eta nortasun finkorik ez duen arima kamaleoikoa genuke, nortasun finkorik gabeko detektibe. Ez hori bakarrik, Euskal Herriko hainbat sektoreri kritika zorrotzak eginen dizkio, tradizioan, maskulinitatean eta itxitasunean iltzatuta daudela leporatuz besteak beste. Ohiko eta arau bihurtu den bizitza ibilbideaz haratago (bikotea aurkitu, ezkondu, seme-alabak izan), identitate lesbiarra aitortu eta aldarrikatuko du lehen aldiz liburu honetan, bere burua are periferikoago bilakatuz.

Bazterretik erdigunera bidaiatuko du eleberrian zehar, Iparraldetik Bilbo hirira, eta bidaia hau mugarri izanen da bere bizitzan. Gauzak aldatu eginen dira Amaiaren baitan, Bilbon lehertu eta askatu eginen da, deus ez da lehengoa izanen. Ezpeldoik Bilbon aurkitzen ditu bere nortasuna askatasunez agertzeko espazio alternatiboak, espazio heterotopikoak bestela esanda (Retolaza, 2010: 135). Laburbilduz, bere emezaletasuna plazara jalgitzen duen emakume baten kontakizunaren aurrean geundeke; Isturitzeko harpeen itzaletan hasi eta Bilbo hiri anitz eta mundura irekian, itzalpetik eta isiltasunetik ateratzeko adorea eskuratzen duena. Bere nortasun lesbiarra euskaltzaletasunetik sortuko du Iparraldeko detektibeak, euskaltzaletasunetik nortasun lesbiarrak zabaldu eta plazaratzeko bideak proposatuz (Retolaza, 2010: 137), euskal literaturan erabat proposamen ezohikoa.

Lan honetan, genero eta hiriaren inguruko azaleko zertzelada teoriko batzuk eman ondoren, Amaiarengan aldaketak eragiten dituen Bilbon murgilduko gara: bere kaleetan, Bilboko gauean, bere ostatu alternatiboetan, Guggenheim eraikuntzaren inguruan, Nerbioi ibaiaren bazterretan eta bere zubietan ibiliko gara joan-etorrian, Ezpeldoik egindako pausuak jarraitu asmoz. Azken batean, bidaia bat proposatzera dator lan hau ere, Ezpeldoik izandako nortasun eta kontzientziaren bilakaera hobeto ulertaraziko diguna, detektibearen leherketa prozesu baten baitan kokatuz.

1. MARKO TEORIKOA: HIRIA ETA GENEROAREN DEFINIZIOA

1.1 Hiria

Hurrengo lerroetan, hirietan eta hauen garapenean aditua den Lewis Mumforden *La ciudad en la historia: sus orígenes, transformaciones y perspectivas* (2012) lanean oinarrituz, hiria zer den definituko dugu. Marta Llorenteren *La ciudad: huellas en el espacio habitado* (2015) ere kontuan hartuko da, askoz neurri txikiagoan bada ere. Ez da erraza hiria zer den esaten, ez baitago bere adierazpen guztietara egokitzen den definizio bat eta bakarrik, ezta deskribapenik historian zehar izandako aldaketa guztiak biltzen dituenik ere (2012: 9). Giza-enbrioi erdigune modura uler daiteke, denbora eta espazio egitura baten moduan. Gizakiak orain arte sortu duen oroimen organo hoberena genuke (2012: 936). Erdigune honen sorrera iluna zaigu, bere iraganaren zati handiena ezabatua edo lurperatua egotearen ondorioz.

Herrixkak lirateke hiriaren aurrekari eta arbasoak (2012: 29). Antzina, behar praktikoez eraginda, hainbat familia-talde eta tribu elkartzen hasi izanen lirateke habitat amankomun hauetan, urtaroen arabera. Gune hauetan, hizkuntza bera hitz egiten zuten guztiek eta bertako biztanleek oso antzeko bizimoduak zituzten, berdinak ez esatearren. Auzokide kontzeptuari herrixkek eman zioten jaiotza, gertu bizi den horri, laguntza eske deitu dakiokeen horri. Gaur egungo hiriaren egitura eta sinbolo asko dagoeneko presente zeuden nekazaritzatik bizi ziren herrixka hauetan, modu primitiboagoan bada ere (2012: 27). Hainbat hiritan aurki daitekeen harresia esate baterako, dagoeneko existitzen zen, oholesi edo muino forma zuelarik.

Herrixkek, gaur egungo hiriek bezala, aldaketak eragin zituzten bertan bizitzen hasi ziren giza-taldeetan; etxekotze eta hezte prozesua martxan jartzea eragin zuten, orden berri bat ezarriz. Lanak elkarbanatzearen ondorioz, denbora libre gehiago izaten hasi ziren bertako biztanleak, haurren zaintzarako erraztasun gehiago izaten auzokideen laguntzaz, elikadura hobetzen gosea atzean utziz, segurtasun handiagoa sentitzen taldean egonda etab. Honek guztiak herrixketan sexu eta nekazal iraultza gertatzea ekarri zuen. Herrixka hauetan sortu ziren ohitura eta funtzioek ezinbesteko ekarpena egin zioten hiriari jaio zenean. Hauetan gertatutako nekazal eta etxekotze garapen prozesua gabe ez genituzke hiriak ezagutu izanen. Honenbestez, hiriaren sorrera paleolito eta neolito garaiko osagaien batuketaren emaitza izan izanen litzateke (2012: 273).

Hiriak sortzeko eragileetako bat gizakiak beste animalia espezie askorekin partekatzen duen bizitza sozialerako joera genuke. Gauzak horrela, hiria bizitzeko gune finko bilakatu aurretik, elkartzeko gune modura hasi zela dirudi, jendea sarri bueltatzen zen harremanetarako gune bat (2012: 20). Hiriak herrixketan hasitako gizakien arteko elkarlana garatzea ekarri izanen luke.

Greziarrek hiriari elementu berri bat txertatu zioten, aurreko kulturentzat erabat arrotza zena: hiritar askearen ideia (2012: 274). Hortaz, hiria biztanle askeen bilgune bihurtu zen, gorputz sozial bat, eta bertan jaio edo bizi zenak ez zion inori deus zor, bizitzaren ate guztiak zituen irekita eta eskuragarri. Gorputz biluziak ageri dira Greziako hiri hauetan, zer ezkutaturik ez dutenak, direnaz lotsarik ez dutenak. Mundu ireki bat eskaintzen zuen hiriak (2012: 287), *Jalgi hadi plazara* liburuko Bilbok lez.

Hiriaren funtzio nagusia gizabanakoen garapena bultzatu eta aberastea izan beharko litzateke, boterea edota gaitasunari forma ematea, energia kultura bihurtzea, erreprodukzio biologikoa giza-sorkuntza bihurtzea (2012: 950). Gizakiaren interes gorenak bere ekintzen erdigunean jartzen ditu hiriak, giza-nortasunaren fragmentu eta zatitxo bereziak batu egiten ditu, gizakiak gizaki oso bihurtaraziz, nazionalismoek eta bestek sortutako gizartearen zatiketa desagerraraziz (2012: 953). Bere dimentsioek, bertako biztanleak ohartzen ez diren arren, presio eta eragin handia dute hiritarren bizitzetan (2015: 349). Hiria gizakiaren nortasun berrirako errealizazio eta adierazpenerako oinarritzko organoa genuke; norberaren ezagutza, auto-errealizaziorako eta autogobernurako bidea emanez (2012: 954). Badirudi gaur egun giza-enbrioi hau aipatutako sortzeko funtzioak galtzen ariko litzatekeela, digestio eta aukeraketa agente bihurtuz, baina gero ikusiko dugun moduan, ez dago dekadentzia honen arrastorik *Jalgi hadi plazara* liburuko Bilbon.

Bestalde, hiriek sekulako erakarpen indarra dute (2012: 934). Kooperazio eta interakzio foku bat dira, giza-bizitzaren kontzentrazio edota bilgunerik handiena. Bertan, aniztasuna da nagusi; munduko arraza eta kultura guztietako ordezkariak aurkitu daitezke, bakoitza bere hizkuntzarekin, bere ohiturekin, bere janzkerarekin, bere historiarekin etab. Gizadiko ordezkari guztiak bertan ikusi dira aurrez aurre lehen aldiz esparru neutral batean. Hiriaren berezko konplexutasun eta kultura aniztasunak munduaren beraren konplexutasun eta aniztasuna haragiztatzen du.

1.2 Generoa

Atal honetan, generoan aditua den Judith Butlerren *Deshacer el género* (2006) kontutan izanda, generoa zer den definituko dugu. Generoa kontzeptu historiko eta kulturala da, gorputza taxutu eta itxuratzeko kultura modu bat; anatomia eta sexua ez baitira posible marko kultural bat gabe. Kategoria historiko eta kulturala izateaz gain, kategoria biologiko eta soziala ere bada, gizarte botere izugarria duena eta pertsonen ulergarria den esparrua osatzen duena (2006: 78). Hortaz, nortasun mota desberdin bat izan eta anatomiarekin harreman konplexua izateaz aparte, erabat erregulatzaila genuke, politikoa ere baden zerbait (2006: 97). Gehienetan, sexu-ezberdintasunera murriztua ageri zaigu, emakume eta gizon genero bitarrera, generoaren esanahi kopurua murriztuz, genero bitarra ugalketa eta sistemaren bermea delarik, gizartea kontrolatzeko modu bat.

Ildo beretik, kontzeptu performatiboa da, malgutasun handiko eraikuntza kulturala, denbora eta espazioaren bitartez aldatzen dena, lanean zehar ikusiko dugun moduan (2006: 25). Hari beretik, generoa inprobisazio-praktika bat genuke, beste batzuekin edo beste batzuentzat, etengabe egin eta eraikitzen ari den zerbait, baina inoiz ere ez bakardadean. Honenbestez, generoa eratzen duten terminoak hasieratik norberarengandik kanpo aurkituko lirake, gizartearen baitan, hots, gizarteko arauen baitan (2006: 13). Inoiz aukeratzeko aukerarik izan ez duen mundu sozial batek eraikiko luke gizakia.

Generoaren esparruan, desirak pisu handia du. Gizakiaren desirak errekonozimendua lortzeko beharra du, bizi bizigarri bat aurrera eraman ahal izateko (2006: 14). Beraz, generoak ere, desirak bultzatua egonik, errekonozimendua bilatzen du, gizarteak onartua izatea. Publikoki homosexualitatea onartzeak zalantzan jartzen du zer hartzen den errealitatetzat eta giza-bizitzatzat (2006: 52). Urrats honetan, gizarteak giza-bizitza zer den birdefinitzeko duen beharra agerian geratuko litzateke. Bere burua homosexualtzat aldarrikatzen duen pertsona irrealizat har daiteke, gizatiarra denetik kanpo utziz, gizaki izateari utziko balio bezala aitortzaren ondoren, ezinezko gizaki bihurtzea ekarriko balio bezala. Irreal izendatzea bera zapalkuntza modu bat gehiago da.

Azkenik, gutxiengo sozial eta gizarteko talde marjinal baten partaide izateak berarekin dakar espazio publiko eta pribatuen babesaren behar sakona izatea. Beste era batera esanda, espazioaren babesaren beharra du gizarteko gehiengotik eta honen

arauetatik urruntzen den orok (2006: 57). Besteen asalduratik edota eman litezkeen erasoetatik babesteko ez ezik, leku hauetan salbu sentitzeko beharra bere generoa garatu ahal izateko. Modu honetan, espazioa generoaren performazio aukerekin estuki lotua legoke.

2. NOBELAREN NONDIK NORAKOAK

Jalgi Hadi plazara liburua Itxaro Borda idazle lapurtarraren laugarren nobela beltza da; *Bakean ützi arte* (1994), *Bizi nizano munduan* (1996) eta *Amorezko pena baño* (1996) eleberriei jarraipena ematen diena. 2007. urtean argitaratu zen hamasei kapitulutuan antolatutako eleberri hau eta aurreko hiru lanetan bezala, Amaia Ezpeldoi detektibe amikuztarra da protagonista.

Gema Lasarteren hitzetan, euskal literaturaren historian emakume detektibe eta lesbiana bakarra litzateke. Emakumezko detektibea eta lesbiana izateaz gain, detektibe rurala da Ezpeldoi, gertaera bitxiak ikertzen dituen detektibe xelebrea bestela esanda (Retolaza, 2010: 126). Olaziregik honakoa dio: “Amaia Ezpeldoi dugu, detektibe argi eta nahiko atipikoa, ikertzaile ‘gogorraren’ estereotipoari jarraitzen ez diona: emakume sentimentala da, Leninen mireslea, abertzalea eta joera lesbianokoa” (2002: 164). Azken finean, detektibe nomada, arrotza eta periferikoa da, *queer* pertsonaia bat (Lasarte, 2013: 778). Liburu hasieran, horrela deskribatzen du bere burua protagonistak: “Lurraren azalean umezurtz nenbilen, norabide zehatzik gabe loakeen harri borobilaren pare. Arima erratua nintzen. Arima kamaleoia (...)” (Borda, 2007: 16). Bakarrik sentitzen da, ez daki zer nahi duen bizitzan ez norantz doan, etengabe aldatuz doan arimaren jabe da, generoa aldakorra eta performatiboa den kategoria izaki, kanonetik kanpo legokeen arima eta izaera baten jabe.

Laugarren nobela beltz honetan, Iparraldeko lau euskaltzainen desagertzea ikertzeko mandatua jasoko du gure protagonistak. Ez dago apaiz hauen berririk Bilbora Euskaltzaindiako bilkurara joan zirenetik. Kasua hurbiletik ikertu ahal izateko, Bizkaiko hiriburura joan da Baionan bizi den detektibe amikuztarra. Serial killer baten atzetik ibiliko da eta bertan bere aspaldiko lagun Carmenekin elkartuko da.

Jalgi Hadi plazara izenburuak Etxeparerengana eramaten gaitu zuzenean, Bernat Etxepareren *Lingua Vasconum Primitiae* (1545) liburuko “Kontrapas” poemara zehazki, hau baita olerkiko leloa. Esanguratsua da, euskaltzainen desagertzenak

Etxepareren kopia batzuekin baitu zerikusia, autore honen poema pornografiko batzuekin hain zuzen ere. Mendeetan zehar ezkutuan mantendu ondoren, euskararen ohorea eta euskaldunen moralak zikinduko zutelako beldurrez, apaiz euskaltzainetako batzuek Donostiako argitaletxe handi eta mediatiko bati saldu nahiko dizkiote. Gatazka hau legoke finean desagerpenen atzean.

Bestalde, izenburuaren garrantziarekin jarraituz, Amaia Ezpeldoik eleberri honetan onartu eta aitortzen du bere lesbiana izaera. “Jalgi Hadi plazara eleberriaz eta izenburu esanguratsuz baliatzen da Itxaro Borda Amaia Ezpeldoik lesbiana dela argitzeko” (Lasarte, 2013: 770). “Jalgi hadi plazara, euskara, lesbiana, euskara, lesbiana, eusleskarabianakaresbeusbianaka” (Borda, 2007: 218) esaldiarekin bukatzen da liburua, izenburua berriro ere gogora ekarriz.

Aurreko hiru lanetan, batik bat begirada, sentimendu eta zirrara barnekoi zena, aldarrikatutako identitate eta kokapen politiko, sinboliko eta sozial bilakatzen da nobela honetan. Armairutik ateratzen da Iparraldeko detektibea, plazara egiten du jauzi, eta modu esplizituan hitz egingo du bere nortasun lesbiarraz (Retolaza, 2010: 127).

3. DETEKTIBEAK NOBELAN ZEHAR EGINDAKO IBILBIDEA

Narrazioa Isturitzeko kobazuloetan hasten da (Nafarroa Behera), bertan baitago gure protagonista bisita gidatua egiten. Ezpeldoik Isturitzeko harpea amaren sabelarekin alderatzen du, han egonik amaren sabelera bueltatuko balitz bezala, non amak eskua sabel gainean jartze hutsarekin babestuko lukeen. “Amaren sabelerako itzulera hunkigarria zen, eztitasun eta laguntasuna falta nituelako bizitza normala deituriko zer madarikatu horretan (...)” (Borda, 2007: 10-11). Isturitzeko harpean kanpoko hoztasun eta bakartasunetik salbu sentitzen da. Álvarezek gogorarazten digu sortzezko etxea edo gunea dela gizaki gehienon bizitzetan gune garrantzizkoena, bai babesle papera bete izan bai zapaltzailearena, berarekin alderatzen baitira bizitzako beste espazio guztiak eta beragandik abiatuz sortzen baitira espazioarekin lotutako metafora anitz (2002: 124).

Kobazuloak duen balio sinbolikora etorriz, mendi barnealdeko leize edota amildegia hau esanahi femeninoko sinbolotzat jotzen da Cirloten lanean (1992: 161). Historiaurretik irudiak ezkutatu eta gordetzeko funtzioa bete duen lekua genuke, besteen begiradetatik salbu egoteko tokia. Platonek ordea, beste esanahi bat eman izan dio. Haitzuloak mundu sentikorra islatuko luke, gertakizunen mundua, zentzumenen bidez

ezagutu daitekeena eta bere kanpoaldea berriz, errealtate argitsu eta irekia, ideien mundua izanen litzateke, arrazoimenaren bitartez lortzen dena (Cirilot, 1992: 162).

Iparraldeko detektibeak babesleku gisa ikusten du kobazuloa, non bizitzaren mingotsetatik salbu legokeen. Ezpeldoik argi uzten digu bertan gustura biziko litzatekeela: “Harpea etxe ideal gisa kontsideratzen narraikan” (Borda, 2007: 11). Freskura atemporal sentitzen du protagonistak kobazuloan, denborak han barruan eraginik izango ez balu bezala, denbora gelditu egin balitz bezala, bake sakratuan sentitzen da. Liburuan zehar etengabeak dira harpearekiko erreferentziak, detektibe amikuztarra beste leku batzuetan aurkitu arren. 14. kapituluaren esaterako, “Izturitzeko harpe zoragarrien ilunpe amakoia” (Borda, 2007: 183) ekartzen zaigu berriro ere gogora, izpiritua freskatzen dizkioten bertako freskura eta lasaitasuna faltan botatzen baititu.

Lehen esan bezala, kontakizuna Izturitzeko kobazuloetan hasten bada ere, gure detektibea Baionan bizi da garai honetan, etxeko leihotik egunero Larrun mendia ikusten duelarik. Bigarren kapituluaren, Zuberoatik Baionara eginiko ibilbidearen berri ematen digu Ezpeldoik, bizitoki aldaketa honek aldaketa ugari eragin baitzizkion. Pasarte honetan, adibidez, komunismoa alde batera uzten duela ikus daiteke eta erabat bakarti bilakatzen dela: “Mauletik Baionaratzean komunista izateari uko egin nion, ez nuen gehiago partekatzeke xederik, hobe erranik ez nuen gehiago ezer inorekin banatzekorik (...) bakartia bilakatu nintzen, bakarti autista eta kongenitala” (Borda, 2007: 23). Gauzak horrela, Mauletik Baionara bidaiatzean, ideologikoki ez ezik, psikologikoki ere aldaketak biziko ditu protagonistak. Ideologia galtzean bakarrik geratzen da, oinarri politikoak galtzearekin batera mundua ulertzeko prisma galtzen duelarik. Badirudi Baionan ez duela horrelako talde baten parte sentitu nahi, bere prisma propioa nahi duela mundua ulertzeko, horrek bakartasuna ekarriko badio ere. Baionan berriz hasi nahi du mundua berrirakurri eta ulertzen.

Komunismoaren ideiak ez ezik, abertzaletasuna ere atzean utziko du ordura arte bere ideiak sutuki defendatzen zituen detektibeak Lapurdira eginiko bidaiari; “Malkotan urtu zitzaidan halaber ene abertzale sentimendua (...) une batetik hara ez nuen aburu politikorik” (Borda, 2007: 23). Jarrera kritikoa argia suma daiteke abertzaletasuna eta komunismoarekiko; “Lau lematara mugatutako (aburu politiko)ak” (Borda, 2007: 23).

Nazionalismoari funts gutxikoa izatea eta kontserbatzaile izaera egozten dizkio, goitik beherako sistema salatuz: “Mendeak ziren jada, jende multzo bekaitz batek, euskaldun guztientzat, eta hauen izenean, zer irakurri eta zer pentsa zezaketen deliberatzen zuela” (Borda, 2007: 199). Tregoa hitza ere behin eta berriro aipatzen da, gogoraraziz ETA eta nazionalismoa tregoa garaian zegoela, hau iritzi polifoniarako giltzarri gisa kokatuz; “Eskergarria zen tregoa” edota “Tregoa zen hondarrean urkatutako memoriaren ikararazteko balizko zera bakarra” (Borda, 2007: 113 eta 199). Aspertua dago biolentziaz eta bilduma zehatzetara moldatu beharraz. Horrez gain, Iparraldeko eta, oro har, Euskal Herri osoko euskararen transmisioaren eta, bide batez, abertzaletasunaren maskulinitatea ere salatzen da; “Iparraldean, euskararen transmisio eredu ideala zen hori, aita kanonikotik seme platonikora” edota “Aitarene segida hartzea eder zelako Euskal Herrian” (Borda, 2007: 111 eta 38). Ezpeldoiren ustez, abertzaletasunak emakumeak heterosexual eta ama izatera bideratzen ditu (Gabilondo, 2000: 297). Jada ez du diskurtso horretan sinesten, ez doa abertzaleek deituriko manifestazioetara. Baionan dagoelarik esaterako, abertzaleek euskararen alde deitutako manifestazioa erabat ahazten zaio. Aldaketa esanguratsua da, kontuan hartuta *Bakean ützi arte* bildumako lehen nobelan erabat abertzale eta independentistatzat zuela bere burua eta beti parte-hartzen zuela halako ekitaldietan (Retolaza, 2010: 130).

Hirugarren kapituluan, Baionako Pannecau karrikatik Bilbora lekualdatuko da Ezpeldoi, kasua hurbilagotik ikertzeko asmoz. Iparraldetik Bilbora bidaiatzen du, Euskal Herriko hiribururik jendetsuenera. Herri txikiz osatutako lekutik, benetako hirira. Tradizioak oraindik ere pisu handia duen gunetik, mundura irekia dagoen gunera eta euskal kulturako bazterreko txokoa denetik botere-eremuetako batera. Fisikoki ez ezik, mentalki ere bidaiatuko du, ametsen, oroitzapenen eta barne hausnarketan bidez.

Gauzak horrela, bazterretik erdigunerako bidaia bat egiten du Ezpeldoi andreak (Retolaza, 2010: 127), Zuberoatik abiatuz, Baiona pasa eta Bilbon amaitzeko. Bilbon bertan ere bazterretik erdigunerako bidaia egiten du, lehen gaua taberna txiki batean (Engelblau tabernan) igarotzetik azken gaua Kafe Antzokian igarotzera. Retolazaren ustez, aldaketa hau ez litzateke kasualitatea izanen eta Bilbon gune euskaltzale nagusia dena berrasmatzeko gogoia islatuko luke besteak beste, nortasun lesbiarrez (gay eta transexualak) berrasmatzeko desira eta beharra.

Azken batean, nekazal mundu tradizionaletik hirirantz eginiko bidaia baten aurrean geundeke, atzera bueltarik izanen ez duen bidaia bat, modernitatetik postmodernitatera.

4. BILBOKO PAISAIA

Tunel luzearen bukaeran agertzen zaio Bizkaiko hiriburua begien aurrean gure detektibeari, klaustrofobia dela argi utzita, Bilboren argiak itsutu egiten duelarik. Pesako autobusetik hiriari emandako lehen begiradan, sumendi baten ahoarekin lotzen du Bilbo. “Sumendi baten ahoa ematen zuen Hirian nindaikoen laster” (Borda, 2007: 33).

Sumendiak arriskua ekar lezake gogora, bere barruan duen su suntsigarria dela eta (Cirlot, 1992: 464). Hortaz, botere suntsikorra luke, beste guztia ezabatzeko adinakoa. Naturaren indarra bera ere agerian uzten du, gizakien kontrol esparrutik kanpo kokatuz. Gainera, bere barruko putzuan, elementu anitzak harremanetan jarri eta eraldatu eginen lirateke. Ildo beretik, sumendiaren leherketa bortitza itzalpean eta isilean eginiko lan luzeko garai baten ondorio izan daiteke. Psikoanalitikoki hitz eginez, pasioen ikur genuke, hauek ere kontrolaezinak eta suntsigarriak diren heinean.

Hari beretik tiraka, hiria letra larriz ageri zaigu, pertsonaia bat izango balitz bezala, bizitza propioa balu bezala. Kontakizuna erabat markatzen duen paisaia pertsonaia bihurtzen da. Bilbo pertsonaia balitz bezala ageri zaigu Edorta Jimenez idazlearen nobeletan ere; “Bere bizitzarekin, bere momentuekin, bere gorputz horretan dituen atal ezberdinekin...” (Susaeta, 2012). Kasu batzuetan, hiriak sortutako mikrokosmosaren indar semikoa hain da handia, non gizaki bat gehiago bihurtzen den, azken honek bezala jokatzuz (Álvarez, 2012: 132).

Gai berarekin jarraituz, Marta Llorentek honakoa diosku:

La ciudad de la era industrial es contemplada, por primera vez, como espectáculo, admirada y sufrida como parte de la vida. Ya no sólo una escena que enmarca los acontecimientos políticos, festivos, religiosos, sino objeto de representación (2015: 341).

Hortaz, industrializazio garaitik aurrera, hiria ekintzen eszenatoki izateaz haratago, errepresentazioen helburu eta objektu bihurtu da. Gainera, hiria izen konkretu batez izendatzea, Bilbo bezalako izen berezi bat esleituz, berau irudikatzeko modu bat genuke jada (Llorente, 2015: 345).

Ezpeldoik tranbian egindako ibilbideetako batean eginiko adierazpena genuke ondokoa:

Basurtu, San Mames, Sabino Arana, Euskalduna, Abandoibarra, Guggenheim, Uribitarte, Pio Baroja, Abando, Arriaga, Rubera, Atxuri: lineako geltokiek Bilboren historia laburbiltzen zuten (...) mendi mazala batetik bestera zihoan, aska azpilduz (Borda, 2007: 89).

Hiriaren gure ugariak zerrendatu ondoren, euskal nazionalismoaren isla direnak, kirola eta literaturarenak, industria-aroarenak, berrikuntza eta kultura burgesarenak besteak beste, Bilbo bi mendiren artean kokatzen du, aska edo bi mendien arteko lotura moduko batean. Bi mendien arteko distantzia gutxituko balu bezala, bi mendien arteko ezberdintasunak murriztuz, bi gunek kohesionatuz.

Aurrez aipatutako sumendiaren ahoa izatearen ideiarekin oso lotuta, tupina bezala irudikatzen zaigu Bilbo; “Bilboko tupina eztira geriza eske Ariegetik eskapatua?” (Borda, 2007: 66). Metalezko ontzi bat balitz bezala, estalkiduna, beti bizirik eta irakiten dagoen mundu bereizi bat; “Tupina ez zen nehoiz irakitetik etsitzen” (Borda, 2007: 52) adierazpenak argi uzten duen moduan. Beste mundu bat da begien aurrean duena, orain arte ezagututako herri eta hiriekin parekorik ez duena. Benetako hiria genuke, Euskal Herriko hiriburuetan hiriburuena; “Gure hiririk hiriena zen” (Borda, 2007: 92).

Horrez gain, Bilbo alor magnetiko modura ikusten du protagonistak, magnetikoki erakartzen duena, ezin bereiziz, bosgarren kapituluan ikus daitekeen modura: “Alor magnetikoak ginen, Bilbo hala zen, amodioa hala zen, arroztasun salbagarria hala zen (...)” (Borda, 2007: 74).

Guztiontzat ezaguna den moduan, Bilbo hiri erreal bat da, hots, literaturatik kanpo guztiok ezagutzen duguna, ez da idazleak hutsetik sortutako hiri imaginario bat. Behin eleberrian islatuta ordea, fikziozko espazioa bihurtuko litzateke, koordenatu propioak sortuaz edota errealitateko Bilboren aspektu batzuetan bakarrik arreta jarriaz (Álvarez, 2002: 31). Gauzak horrela, *Jalgi hadi plazara* eleberrian ageri den Bilbok Amaia Ezpeldoik detektibea ezaugarritzeko eta bere jokaerak justifikatzeko bidea ematen du.

4.1 Bilboko kaleak eta bertatik egindako joan-etorriak

Erabat barneratutako hiri bat aurkezten da liburuan zehar. Ikusi besterik ez dago zer nolako zehaztasunez deskribatu eta zerrendatzen dituen Bilboko kaleak eta bertatik Ezpeldoik egindako ibilbideak. Susmagarri bat jarraitzen ari den bitartean esaterako;

Jean Martin Goringo zanpa-zanpa bazihoan Areatzako zubitik (...) Balizko ibilbideak marraztu ziren neure izpirituan: eskuin hartzen baldin bazuen, kaiertzez kaiertz agian Guggenheimeraino lehiatuko zen, edo zuzen-zuzenean jarraituz Lauaxeta plaza borobilerara (...). Azkenean gizonak Nafarroa etorbidetik segitu zuen (...) Lope de Haro abenidara irekitzen zen Axular hotelaren argi iturripean distiratzten ikusi nuen. Atea bultzatu zuen (Borda, 2007: 52-55).

Beste jarraipen baten adibidea jartzearren: “Arte Ederren aitzinean aurkitu nintzen bitxiki. Txillida Platz-en (...) Iturriza baratzeko bidexketarik abiatuak ginen (...) Arte Ederren atarian igurikatu nuen (...) suposatzen nuen Goringo Elkano etorbidean urtu zela” (Borda, 2007: 68). Kaleen izen eta toponimo hauek guztiek espazioa modu zehatz batean islatzea dakarte. Sinesgarriagoa egiten dute testua, egiantzekoagoa, irakurlearekiko hurbiltasuna lortuz, guztiok ezagutzen ditugun lekuak baitira (Álvarez, 2002: 282).

Zazpigarren kapituluan, taxian bere maite Carmenekin doala egindako ibilbidea eta tranbian egindakoa deskribatzen ditu: “Taxiratu ginen eta Carmenek *Artxanda* erran zuen (...) Areatzako kaitik, udaletxeko zubiaren ezkeraldetik, Volantin zelaian Mugika y Butroi kalearen izkinan abandonatu gintuen txoferrak” eta “Basurtu, San Mames, Sabino Arana, Euskalduna, Abandoibarra, Guggenheim, Uribitarte, Pio Baroja, Abando, Arriaga, Rubera, Atxuri: lineako geltokiek Bilboren historia laburbiltzen zuten” (Borda, 2007: 94 eta 89).

Ibilbideak deskribatzeaz gain, hainbatetan leku konkritu batzuen kokapenaren berri ematen da; “Doña Casilda parkea Bilbotik Santurtzira zihoan burdinbidearen aldamenean zegoen”, “Basurtuko ospitalearen ondoan zegoen hiltegia” edota “Ingelesek beraien gida-liburuetan *pink zone* izendatzen duten kartierrean, Kasko Zaharra eta Merced zubiaren artean hedatzen den horretan” (Borda, 2007: 70 eta 82).

Gertakari garrantzitsuenak hiriko Alde Zaharrean gertatzen dira, bertan baitaude Euskaltzaindiaren egoitza nagusia, Plaza Berrian, eta Engelblau ostaturia besteak beste. Parte Zaharra edo Kasko Zaharra maiz ageri da liburuan; “Parte Zaharrean sartzean, kukurusta berdea buru gain pelatuan zekarren mutil batek sua eskatu zidan” edota “Kasko Zaharrean barreiatu baino lehen” (Borda, 2007: 56 eta 36). Bilboko gune

honetako eta gertuko leku eta kale ugari aipatzen dira: Elkano etorbidea, San Frantzisko kalea, Mugika y Butroi kalea, Michel Labeguerie karrika (Barrenkaletik Plaza Berrirako bidean), Erribera kalea, Arriaga antzokia, katedrala, udaletxea, Areatzako zubia, Areatzako parkea, Lauaxeta plaza eta Plaza Berria bera batzuk aipatzearren.

Aurreko paragrafoko ideiarekin jarraituz, Bordaren laugarren nobela beltz honetan, Bilbo langilearen aldeko apustua egiten da, Jon Kortazarrek Bilboko udalak 2000. urtean ateratako ipuin liburu bikoitzaren azterketatik ondorioztatutakoaren ildo beretik. Horrela, Parte Zaharrari eta Barrenkaleri (Zazpi Kaleetako bati) pisu handia ematen zaie. Barrenkaleko 18. zenbakian bizi da Carmen hain zuzen ere, eta hortaz, Ezpeldoik hirian egonen den denboran, Zazpi Kaleetako bat izanen du etxe, hiriko gunerik zaharrena. Barrenkalez gain, Zazpi Kaleak ere badiren Artekale eta Somera aipatzen dira; “Artekaletik, Somera eta Correosen gaindi, Areatzako zubian kausitu ginen” (Borda, 2007: 200).

Laugarren kapituluan, “Bilboko Parte Zaharrak labirintoa zirudien, labirinto gosetia bakartasunaz asetzen zen horietarik” (Borda, 2007: 56) adibidean, hiriburuko gunea zaharrena labirintuarekin alderatzen da, bertan galtzeko edota harrapatua geratzeko arriskua balego bezala. Natalia Álvarezen aburuz, hiria maiz labirintu paisaia bihurtzen da, espazio iragangaitz eta misteriotsua, bere kaleek osatzen duten sare korapilatsuak pertsonaien egunerokotasuna gatibatuko balu bezala (2002: 341). Adimena erabiltzea ezinbestekoa izaten da horrelako sare korapilatsu batetik ateratzea lortzeko eta hain zuzen ere, adimena da Ezpeldoik detektibeak erabili beharko duena kasua argitu ahal izateko. Horrez gain, labirintoa gizakiaren barnealdearen sinboloa ere bada, bere izana eta bere kontzientziarena (Álvarez, 2002: 116). Gizakiak bere espazioa bilatzeko egiten duen etengabeko bilaketa islatuko luke.

Idea honen harira, Cirloten sinboloen hiztegian *laberintu* sarreran aurkitzen duguna esanguratsua suertatzen da, kontuan hartuta hiriaren kokapena eta 2000. urtean 700 urte bete zituela; “El laberinto se puede experimentar en la realidad de los dédalos de una ciudad desconocida, en especial de las ciudades antiguas y orientales” (1992: 266).

4.2 Bilboko gaua eta Engelblau taberna

Bilboko gau giroa eta Engelblau tabernen eragina erabakigarria da Amaiak egindako bidaiari, bertan topatzen baitu identifikazio eta sinbolo iturria (Retolaza, 2010: 131). Gauak babesa suposatzen du, gizartearekiko babesa, besteen begiradetatik salbu egotea, nahi den hori egin ahal izateko aukera besteen epaien beldur izan gabe (Álvarez, 2002: 340). Ildo honetatik, Ezpeldoik honakoa dio Bilboko gauaz:

Egun argiz ikusten ez ziren bizidunak beraien harpeetatik ausartzen zirelako, eguzkia ezkutatu arau: punki taldeak muturretakoa zeramaten zakurrekin, hippy jantzi loretsuz apaindu bikoteak, gizonak gizonekin, emazteak emazteekin, eta bakarretan, turistak izan zitezkeen hargatik, gizonak emazteekin (Borda, 2007: 100).

Beraz, gauak askatasun mantu bat zabaltzen du hirian, gizartearen gehiengotik kanpo leudekeen bera bezalako arima erratuak beren ghetto eta babeslekuetatik ateratzera gonbidatuz, besteak lo dauden bitartean.

Laugarren kapituluan, “Gauak ezti ditun Bilbon” (Borda, 2007: 57) dio protagonistak; gauaz eta ilargipean Bilbon sortzen den giroa maite duela aitortuz. “Gau urdineko ilargiari muturra eskainirik, otso emearen antzera atsegina oihukatu nuen” (Borda, 2007: 150) aitortuz Ezpeldoik ilargia aipatzen du. Ilargiak lotura estua du itsasoarekin, itsasoaren mareekin zehazkiago, eta beraz, honek bezala, askatasuna eta infinitua ekar lezake gogora (Cirlot, 1992: 283). Gainera, landare eta animalien hazte prozesuan duen eraginaz gain, emakumeen sinbolo ere izan daiteke, bere zikloak emakumearen hilekoarekin duen harreman estua dela eta. Guztiaren gainetik, etengabe aldatzen ari den izakia dugu eta aldaketa hauek edonork ikus ditzake. Aniztasuna islatzen du eta aniztasun horretan bateratze eta erregulatzailerik papera ere betetzen du. Hortaz, ilargia biologikotik oso gertu legoke, gizaki eta landareak ere etengabe aldatzen baikara. Satelite hau maiz naturaren alde ezkutuaren gidaritzat hartzen da, eguzkiarekin antitesian. Bilboko gauaren aniztasunaren batasuna lortuko luke.

Ilargiak gidatutako Bilboko gaueko giro honetan, Engelblau ostaldea da beste taberna guztien artean nagusitzen dena. Laugarren kapituluan aurkezten zaigu taberna hau lehen aldiz, Kasko Zaharreko izen eta zenbaki gabeko karrika batean. Haizemin abeslari transexuala da jabea eta gay, lesbiana, drag queen eta trans guztiek Bilbon toki lasai, libre eta alai edukitzea izanen litzateke ostalduaren funtzioa duela hamar urte sortu zenetik. Honenbestez, aniztasunaren habia genuke, askatasun ikur.

Tabernak berak baino, Haizeminek eta honek Iparraldeko ohiturazko kantak molde postmodernoan abesteko duen moduak sortuko dio zirrara izaera lesbiarreko emakumeari. Honakoa diosku Ezpeldoik lehen aldiz emanaldiaren lekuko izan ondoren: “Zuberoan ez zen horrelako kantaririk edota “Bilbon aurkitzen dun Iparraldeko kultura altxorra zaintzen duen altzoa” (Borda, 2007: 61 eta 64). Aurrerago ere ideia berarekin egiten dugu topo: “Beharrik bazirela Bilbon Iparraldeko euskararen maitale indartsuak” (Borda, 2007: 186). Azken aitortza hauetan, Engelblau ostatua eta bide batez, Bilbo bera ere aniztasun gunea dela azpimarratzeaz gainera, Iparraldearekin lotzen du Ezpeldoik, Iparraldeko kulturaren zaintzaile gisa ikusiz, gutxiengo baten kulturaren gordetzaile. Zortzigarren kapituluan, hirugarren sexukoentzat ortzadar koloreko ostatu elebidun gisa definitzen da.

Bestalde, Itxaro Bordak Engelblau taberna darabil Bilbo eta Berlinen arteko lotura egiteko, bertan dagoen Marlene Dietrich aktore eta abeslari Berlindarraren irudia konkretuki. Honakoa dio Ezpeldoik posterra ikustean: “Soa, murruan dilingatu Marlene Dietrichen poster handian nerabilen, Berlingo izarrak salbatuko ninduela ustez” (Borda, 2007: 101). Hemendik aurrera, Bilbo eta Berlinen arteko lotura sinbolikoak sarri egiten dira; “Berlin-Bilbo tren zuzena nahi dut” nahiz “Burdin-zizelki berdina badun Berlinen” (Borda, 2007: 61 eta 80) lotura honen adibide bi baino ez dira.

Retolazaren arabera, Castlek aipaturiko *Islanding* gunea izanzen litzateke Bilbo amikuztarrantzat, beste nortasun lesbiar batzuentzat Paris edo Berlin denaren pare (2002: 128). Aniztasunarekin lotu nahi da beste behin ere hiria, mundu mailan kokatuz bide batez, munduko hiri handienen mailan. Munduarekin eta bertako edozein txokorekin harremanak izateko irekia legokeen hiria.

4.3 Guggenheim museoa

Guggenheim museoa ere maiz aipatzen du Ezpeldoik, hiriburuaren eta hiriak izan duen aldaketaren erakusle. Lehen aldiz aspaldiko partez tranbiatik miretsiko du, Carmenekin zuen “El Tilo” kafetegiko hitzordura heldu baino minutu batzuk lehenago. Eraikuntza honen handitasuna azpimarratzen da liburuaren hainbat pasartetan eta Jeff Koons-en lorez eginiko Puppi txakurra ere aipatzen da; “Jeff Koons-en Puppik errezebitu gintuen Guggenheimeko sarreran” (Borda, 2007: 73).

Guggenheim pareko Louise Bourgeois andrearen amaren metafora litzatekeen burdinazko armiarma erraldoia ere aurki daiteke liburuko zazpigarren kapituluan; “Guggenheim paretik iragaten, burdinazko armiarma erraldoiaren zangoek mehatxatzen nindutela iruditu zitzaidan” (Borda, 2007: 89). Irudi honek Ezpeldoik etxean eta familian pairatutako nolabaiteko errepresioa utz lezake agerian, bere nortasuna askatasunez garatzea oztopatuz, zer izatea egokitzen zitzaion gogoraraziz etengabe. Ama izan behar izateari ihes egin ezina ere irudika lezake, mendeetan zehar emakumeon derrigorrezko funtzio eta betebeharra izandakoa.

Eraikuntzara itzuliz, Iñaki Estebanek honakoa diosku Guggenheimen sorreraz eta Bilbori ekarri zionaz:

El Guggenheim se ideó como un ornamento para estetizar una ciudad brusca, feísta y en crisis. Una década después, el museo acoge a un millón de visitantes anuales y se erige como un monumento que ha reinventado el uso, ahora brillante, y el esplendor de una orilla de la ría de Bilbao, antaño negra y maloliente, condenada a la roña por una fábrica en ruinas y un depósito de contenedores (2007: 10).

Ezpeldoik museoaren inguruan egindako hausnarketek Estebanen iritziarekin bat egiten dute erabat; “Frank Gerhyren titaniozko egoitzak salbatu zuen Bilbo industria egituren erraustearen zepoan behera erortzetik” edota “Guggenheimeko bastitza argiarekin, eguraldiarekin eta ikusleen begiekin jostatzen zen, itsu eta zoramen haziz” (Borda, 2007: 78 eta 79).

Estebanen aburuz, horrelako eraikin bat eraikitzeak berarekin dakar kokatzen den eremuko esanahiak aldatzea (2007: 20). Berrikuntzetara irekia dagoen hiri baten mitoa sortzea dakar, *standing* altuko hiri moderno baten jaiotza. Hari beretik, Bilboko hiritarrek ere museoa modernitatearen, gaurkotasunaren eta etorkizunaren ikur gisa barneratu dutela aipatzen du, Bilbo horrelako museo bat izateagatik bere ingurua baina pausu bat aurrerago egonen balitz bezala. Bilboren modernizazio ikur ez ezik, Euskal Herria osoaren modernizazio seinale genuke (Esteban, 2007: 22). Eraikuntza honek Bilbo mundura jalgi zuen/du eta mundu mailan hiria desberdin ikustera ekarri zuen/du berarekin. Museoaren kokaleku den Abandoibarra bera ere mapetan kokatu zuen (Esteban, 2007: 37).

Estebanen hitzetan, Guggenheim behin ikusita oroimenetik ezaba ezin daitekeen eraikuntza horietako bat da (2007: 31). Salbuespenik gabe eta betirako, Bilbo hiriarekin lotua dagoen eta lotua egonen den monumentua. Baieztapen honen lekuko da hirugarren kapituluan Carmenek dion “Bilbon izan dira. Guggenheimen” (Borda, 2007: 47), Bilbo

eta Guggenheim gauza bere izanen balira bezala. Sinekdoke espazial eta sinboliko modura agertzen da, eraikuntza hiriaren ordeztu, Guggenheimek hiri osoa kutsatu balu bezala.

Guggenheimek erresistentzia ugari sortu zituen hasiera batean, burgesiara bideratutako aisialdia baitzen, hots, aisialdi sofistikatua eskaintzen zuen/ du (Esteban, 2007: 26). Jendeari memoria galarazteko, lokartzeko edota hiriaren benetako iragana estaltzeko helburuz egin izan zela salatu zuten askok eta askok eta horien artean egon zen Ezpeldoik bera ere. Onartzen du hasieran museoa eraikitzearen kontra bazegoen ere, orain gustatu egiten zaiola eta maite duela noizbehinka erakusketaren batera joatea. Hortaz, espazioa honen esanahia aldatu egin da, hau da, Guggenheim eraikuntza polisemikoa eta aldakorra gertatu Ezpeldoiarentzat.

Itxura, itxurakeria, nahasmena, ingurubiraka ibiltzea eta objektu material andana behar izatea guztiaren gainera dagoen garai hauetan, badirudi hau guztia salatzeke erabiltzen duela maiz Ezpeldoik 1997ko urriaren 18an inauguratu zen eraikuntza.

4.4 Nerbioi ibaia eta bere zubiak

Ibaiak naturak duen sortzeko indarraren erakusle dira, naturaren zati eta honen ordezkari izateaz gainera (Cirlot, 1992: 389). Horrez gain, denboraren metafora ere badira, haien ibilbidearekin denbora ezin daitekeela gelditu gogoraziz. Bestalde, bizitzaren zirkulu forma ekar dezakete gogora, min eta poz beren edo antzekoen errepikapenak islatuz (Álvarez, 2012: 121). Bilboko paisaiara bueltatuz, Nerbioi ibaia ere garrantzi handia du istorioan eta Cirlotek aipatutako funtzioa beteko luke. Horrez gain, hiria bitan zatitzen du ibai honek eta berak ematen dio izena hiriari: bi+ albo.

Álvarezen hitzetan, ibaia elementu kontraesankorra da, bere bidean bereizi eta batu egiten baitu aldi berean (2002: 121). Hortaz, Nerbioik Bilbo banatu (muga bat balitz bezala) eta elkartu egingen luke aldi berean. Beti mugimenduan baina beti hor. “Arangatxa gailurra hor duzue, Larrun adina gora, sabelaren sakonetik Nerbioi erreka jaukitzen zaio. Ebrora isurtzen ez den ibai soiletarik bat da (...) gure mugak dira” (Borda, 2007: 124). Nerbioiri izaera berezi bat egotzen zaio bere urak Ebrora ez isuriz, gehiengoaz bestelakoa gertatu, gehiengoaren jokabideari jarraitzen ez dion gutxietako bat. Badirudi Ezpeldoik identifikatua sentitzen dela ibai honekin: gehiengoaz bestelakoa, aldakorra, kontraesanez bete, etengabe martxan eta aldatuz diharduena norantz doan

jakin gabe, norantz jakin gabe baina badoa. Bederatzigarren kapituluko adierazpen honetan gainera, nolabaiteko lotura bat ikusten da Nerbioi ibaiaren abiapuntua litzatekeen Arangatxa gailurraren eta Baionako bere apartamentuko leihotik ikusten duen Larrun mendiaren artean, erkatu egiten dira altuerari dagokionez.

Bosgarren kapituluan, Nerbioik itsas usaina sentiarazten dio protagonistari; “Ibaian gora zetozen kai-txoriak miretsi nituen (...) itsas usaina usaintzen nuen” (Borda, 2007: 63). Honenbestez, Nerbioi itsasoarekin lotzen zaigu, bertan aurkitzen ditugun hegaztiekin, infinituarekin, hots, askatasunarekin. Gehiengoak egiten duena ez egiteak askatasuna ekarriko balu bezala.

Goian aipatutako ideiarekin oso lotuta, zubiek ere badute bere garrantzia; hiria batu eta bereizten duten guneak izaki. Cirlotek bi mundu desberdinen arteko bitartekari lana egotzen die. Liburuan agertzen diren batzuk aipatzearren; Merced zubia, Salveko zubia, Deustuko zubia, Erriberako zubia eta Areatzako zubia.

Bosgarren kapituluan, detektibe ezohikoak honakoa dio Deustuko zubira iristean: “Deustuko zubia. Bilboko zubirik bereziena. Ordulari bat, uraren gainean. Ez ote ziren hemen biltzen Euskaldunako langileak, nagusiek altzairu eta ontziolak hertsit zizutenean?” (Borda, 2007: 71). Argi uzten du zubi hauxe dela Bilbon gehien atsegin duena, uraren, hau da, denboraren ordulari funtzioa beteko lukeena. Horrez gain, langileriarekin lotzen du zubia, bera bezalako jende umilarekin.

Álvarezek mugako espaziotzat ditu (2002: 125) eta ideia berarekin jarraituz, Cirlotek ondokoa diosku: “El puente simboliza siempre el traspaso de un estado a otro, el cambio o el anhelo de cambio. Como decimos, el paso del puente es la transición de un estado a otro” (1992: 375). Honenbestez, zubiek egoera batetik besterako aldaketa islatu ez ezik, aldaketa bera edo aldaketa gogoia ere isla dezakete, zubia gurutzatzeak egoera aldaketa ekar dezakeelarik. Hala ere, liburuan ez dirudi zubia gurutzatzean halako aldaketarik gertatzen denik; “Erriberako zubia zeharkatu eta laster San Frantzisko kalean gora Nerbioiaren ezpondaz aldatu ginen” (Borda, 2007: 108).

5. HIRIA EZPELDOIREN ALDAKETEN ERAGILE

Bilbo hiriaren erdigunera eginiko bidaiak hiru identitate gatazka ekartzen dizkio protagonistari (Retolaza, 2010: 130). Lehenik, nekazal identitatea vs hiri identitatea. Bigarrenik, identitate heterosexuala vs identitate lesbiarra eta hirugarrenik, identitate linguistiko hegemonikoa (Hegoaldekoa) vs identitate linguistiko periferikoa (Iparraldekoa). Guztietan garrantzitsuena ordea, nekazal identitatea (herria) vs hiri identitatea (hiria) izanen genuke, aldaketa honekin estuki lotuak baitaude beste biak. Are gehiago, lehen identitate gatazka horrek eragiten ditu gainerakoak. Álvarezek bere lanean honakoa diosku: “La urbe parece convertirse en el espacio primordial en el cual se ve confinado el hombre moderno, aprisionándolo y provocando o favoreciendo constantes problemas de identidad” (2002: 134). Honenbestez, hiriak gizaki modernoak gatibatuko lituzke eta etengabeko identitate gatazkak sorraraziko lizkioke gizabanakoari.

Bilbo eta landa-eremuaren antitesi nabarmena islatzen da etengabe, hiria vs herria dialektika erabiliz; “Bitxi zitzaidan beti Bilbo industrialia eta bere bazter ruralak kontrestan ikustea” (Borda, 2007: 116). Are gehiago, Bilbo vs beste guztia dialektika ere suma daiteke: “Bizkaiko golkoaren beste puntan ginauden araz eta moldez” (Borda, 2007: 81). Hiriak konnotazio positiboa du, Ezpeldoiri erabateko askatasunez jardutea ahalbidetzen baitio, etxeko eta herriko tradizioaren loturetatik aske. Herria berriz, itxitzat eta atzerakoitzat hartzen da; “Herriak ez zuen inor barkatzen” edota “Zuberoako herri gris eta euritsuan” (Borda, 2007: 178 eta 93) erabiltzen duenean Mauleri erreferentzia egiteko, garbi ikus daiteke herriaren konnotazio ezkorra, leku iluna islatuz, izaera zapaltzailekoa, bigarren aukerarik ematen ez duen horietakoa, tristea. Isiltasuna eta geldotasuna nagusi diren lekua. Hamahirugarren kapituluan, urrutiago doa Ezpeldoi, eta herri eta herrixkak ia lo daudela diosku; “Ebro ibaiaren eta isiltasunak zapaltzen zuen herriaren (...) kasik lo” (Borda, 2007: 173). Bien bitartean, hiriak beti esna eta bizirik leudeke; “Hiria ez zen sekula dardaratzetik gelditzen, gaueko eta eguneko arima erratuen interesak arras ezberdinak ziren arren” edota “Hiri hau gauez eta egunez etengabe dindari zagon” (Borda, 2007: 115 eta 59). Hiria lanerako, bizitzeko eta bertatik mugitzeko lekua izateaz gain, egunerokotasunetik ihes egiteko tokia ere baita, giza-harremanen gune garrantzitsua izaki (Álvarez, 2002: 331).

Amaiarentzat herria basamortua da eta oro har, Euskal Herria bera ere: “Sentitzen nuen Euskal Herriaren orekaren bermeetarik bat desertua zela. Ez zen mendien berdetasuna, are gutxiago itsasoaren urdin arranguratsua salbagarri, baizik eta basamortuaren urrezko idorra” (Borda, 2007: 196). Irudi honen bidez, oraindik ere tradizioan eta itxitasunean iltzatutako Euskal Herria bat marrazten zaigu liburuan zehar. Berritasunak eta ezberdina den oro baztertzen dituen. Bilbo aldiz, berrikuntzetara irekia dago eta etengabe aldatuz doa, Guggenheim eraikuntza edota zortzigarren kapituluan ageri den Txortaka izeneko sex-shop-a horren erakusle, herri batean ezin pentsatua.

Horrez gain, basamortua erlijioarekin eta purutasunarekin lotutako sinboloa da, jainkoaren errebelaziorako leku aproposa, non abstrakzioa nagusitzen den, bizi-esparrutik eta esperientziarenetik at (Cirilot, 1992: 167). Sinbolo honen bitartez, herri honetan eta gure kulturean erlijioak, elizak eta apaizgoak izan duen, eta gaur egun ere izaten jarraitzen duen, botere izugarria salatu nahi du Ezpeldoik. Honako adierazpenetako salaketa gogorak horren froga dira; “Heziketa kristau zehatza pairatua nuelako”, “Eliza ez baitzen nehoiz izan batzuek aldarrikatzen zuten Euskararen Etxea” edota “Sekulan gaurko apez bizihaztuak hiltzen baldin baziren, (...) gero hobeen itxaropena zukeen euskarak eta euskal kulturak” (Borda, 2007: 163, 37 eta 46). Eliza eta erlijio hauexek izanen lirateke Etxepareren testu pornografikoak urte luzez ezkutuan mantentzen tematu zirenak, euskaraz moralarentzako halako testu kaltegarri eta lotsagarriak sekula idatzi gabe zegoela goraiatuz. Basamortutik aldentzeko grina suma daiteke, Ezpeldoiren ustez bertako lurretan ezin baita ez landare ez deus berririk hazi.

Tabuz beteak legoke herria; “Mila tabu zeuden, etxeetan, familietan, herrietan edo alderdi politiko eta kulturaletan. Alta tabuak ukatzen ziren; herrialde aitzinatuen itxura eman nahi genuen” (Borda, 2007: 195). Bere aburuz, herrian eta familian gai jakin batzuk aipatu ere ezin dira egin, debekatuak daude, infernura zoaz zuzenean, aipatze hutsarekin norbaiti mina egiten ariko bazina bezala. Hipokresia asko dago herrian. Goiko zerrendatzean ez dira hiriak aipatzen, hirian protagonista herriko tabuetatik salbu sentitzen delako seinale.

Garraiobide andana aurki dezakegu Bilbon, herri txiki eta basamortuetan ez bezala; trena, topoa, tranbia, autobusak eta taxiak aipatzen dira. Garraiobide hauek

garraio azkarrera bideratuak egonik, anonimatua eta bakartasuna sustatuko lukete, nahiz eta hiriko espazio publikoaren parte izan (Augé Álvarez en 131). “Ez lekuak” izanen lirateke, gizarte modernoaren eta Bilbo hiriaren despertsionalizazioa agerian utziko luketen guneak, egitura soziala fisikoki birsortzeaz gainera. Horrela aitortzen du Amaiak: “Jendeak (...) garraio publikoetan gordetzen zuen bere bakartasuna” (Borda, 2007: 89). Eskergarria zaio horrelako lekuetan bidaiatzeko aukera.

Birritan esan bezala, Bilbok aldaketa erabakigarriak eragingo ditu protagonistarengan eta honek emanen du bide Amaiak azkenean nortasun homosexuala argitara ateratzeko. Argi eta garbi ikus daiteke hurrengo pasarteetan: “Bilbok voltez hanpatu zutoin moldatzen ninduen”, “Bilbon aztoratzen nindoan (...) hiritartasuna berraurkitzen nuen” edota “Bilbon hesi mentalak erortzen zihoazkidan” (Borda, 2007: 74, 92 eta 96). Bilbok aztoratu egiten du, hiritartasuna biziko du berriro ere gaztetan Pariseko txinatar auzoan lez, Baiona ez baitu hirizat kontsideratzen. Bere barruko mugak deuseztatuz joanen dira bertan. Álvarez en hitzetan pertsonaia baten kontzientzia aldatu egin daiteke leku jakin batzuetan zehar mugitzen denean, garapen psikologikoa eraginez (2002: 357).

Ordura arte pentsaezina edo posibletzat jotzen ez zuena, posible iruditzen zaio Iparraldeko detektibeari Bilbon. Bikote homosexualak ikusiko ditu kalean musuka normaltasun osoz; “Bilbon aztoratzen nindoan: hasieran bikote konbentzionala zela uste nuena, hurbildu eta bi gizon ziren: kalearen minean zeuden, elkarri musuka” (Borda, 2007: 56). Benetako hirira etorri baino lehen adibidez, pentsaezina zitzaion emakume bat egunez kale erdian musukatzea. Bigarren kapituluan, Baionan dagoela, badu aukera, baina ez du egiten; “Jendearen txutxumutxuak itxuratu nituen eta ezinegonaren ezpata zorrotzak larrantzi ninduen: otoi, Erika, ez karrikaren erdian” (Borda, 2007: 31). Txutxu-mutxuen beldur da, besteen iritzi eta epaien beldur, besteen mehatxuzko begiraden beldur, hiriak bere indiferentzia kutsatuko dion arte. Hiriak bizi anonimoa egiten baitu posible, bizitza anonimoa duen forma baita, inguruari bere indiferentzia barreiatzen diona (Llorente, 2015: 396). Ideia honekin lotuta, zazpigarren kapituluan Amaiak egiten dituen aitorten hauek esanguratsuak dira: “Bilbon bizitzea? Zergatik ez, gure hiririk hiriena zen eta hiria izanez, bizitza baldintzatzen baldin bazuen ere, bizitza bere zabaltasun bakartian balizkotzen zuen” edota “Mauleratzean, hiri erraldoietako estresa eta anonimatua falta zitzaidan” (Borda, 2007: 92 eta 93). Faltan botatzen zituen anonimatua eta hirietako axolagabekeria aurkitzen ditu Bilbon.

Ezpeldoik honakoa diosku Bizkaiko hiriburuko dutxan aurkitzen den momentu batean: “Puskaka erortzen zihozkidan munduaren eta neure arteko berunezko tapakia. Mugimendu askeagoak egiten nituen, dutxatik zetorren euria ama ontziko likido amniotikoa bailitzan” (Borda, 2007: 149). Aske sentitzen da Bilbon, libre, eta Isturitzeko kobazuloetan bezala, amaren sabelera bueltatuko da, bere etxean sentituko da, babesean, gainerakoen eta gizartearen begiraden axolarik gabe. Ez du zer ezkutaturik.

6. IDENTITATE LESBIARRAREN PLAZARATZEA

Bilboko hirian sentitzen duen aniztasun, askatasun, indiferentzia eta anonimatuek eragin zuzena izanen dute bere nortasun lesbiarraren plazaratze prozesuan, hiria espazio neutroa baita, giza nortasun berrien adierazpen eta eraketarako beharrezko organoa (Mumford, 2012: 953). Ondorioz, Giandomenico Amendolak dion modura, hirian identitate subalternoak sortzeko aukerak zabaltzen dira (2000: 60). Arima erratutzat zuen bere burua bertara iritsi arte; “Arima erratua nintzen” (Borda, 2007: 16). Arima eta pentsamendu okerra zituen emakumea zen. Euskal Herriko hiririk hirienean ordea, askapen-prozesu bat biziko du. Liburu hasieran, Baionan dagoelarik, lesbiana dela onartzen du, baina kostata. Ez du aitortzen eta ez da ausartzen hitzak ahoskatzera. Nahiago du isilean mantendu, Baionan bere maitale izandako batekin duen elkarrizketak ondotoxo erakusten duen modura:

- Lesbiana haiz, ni erdi naizen moduan ...
- Baiki, baina hobe isildurik, ez?
- Egiazko euskalduna haiz: pilota bota eta xixtera kuku. Egin eta ez erran. Ezkuta eta guztia ilunpetik kudea.

Txapa botatzen zidan Erikak (Borda, 2007: 31).

Bilbora iritsi arte, burutik pasatu ere ez zaio egiten lesbiana dela lau haizetara ozen aldarrikatzea mundu guztiak jakin dezan. Isilik mantentzen du, ezkutuan mantentzeko zerbait balitz bezala, lotsaraziko balu bezala. Bekatua edo kutsatzen den gaixotasun bat izanen balitz bezala. Gizarteak horregatik mapatik ezabatuko duen beldur da, dagoena baina are ezabatuago utziz.

Behin Bilbon, nortasun lesbiarra sendotzeko sinboloen bila ibiliko da hirian zehar egiten dituen joan-etorrietan (Retolaza, 2010: 131). Bilboko joan-etorri hauei esker, zazpigarren kapituluari Ezpeldoik ia-ia lesbiana hitza ahoskatzen du, baina

mingainaren puntan geratzen zaio, ezin atereaz; “Hara: ... ni ere ... nüzü” (Borda, 2007: 94). Hamaikagarren kapituluraino itxoin beharko dugu hitz hau Amaiaren ahotan entzuteko. Dena den, zortzigarren kapituluan jada aldaketa nabariak hautematen dira bere identitate sexualarekiko, Amaiak bere bilbotar Carmen maiteari aitortza hau egiten diolarik: “Denbora joan ahala ohartu naizelarik (...) elkar maita genezakeela naturaltasun osoz, denbora hau guztia galdu gabe” (Borda, 2007: 109). Natural sentitzen du sentitzen duena, naturala da maitasun hori ere, orduan zertan ezkutatu? Lehenago onartu ez izanaren damua du, oztopo guztiak gainditzeko adorerik lehenago ez bildu izanaren damua bestela esanda.

Hamaikagarren kapituluan, hasiera batean oraindik ez da pausua ematera ausartzen, baina sumatzen da aldaketa nabaria gertatu dela gure protagonistaren baitan. Askoz esfortzu gutxiagorekin onartzen du, halakoa dela ukatzeko inolako tentaldirik izan gabe. Ez du isiltzen jarraitu nahi, baina beldurrak oraindik ere bere baitako egiak baina indar gehiago dauka; “Nahi zuen atsolutoki ene izaera lesbiana onartu eta deiadarka nezan. Baina ez nintzen oraindik atrebitzen ekintzak hitzekin brodatzera” (Borda, 2007: 150). Oraindik ez da gai sentitzen den hori hitzetan jartzera, hitzez deskribatzera. Kapitulu amaieran, azkenean, “lesbiana naun” (Borda, 2007: 152) hitzak ahoskatzen ditu lehen aldiz, bainuontzian, urez inguraturik dagoela. Uretan murgiltzeak garbiketarekin eta purifikazioarekin lotura badu ere, gehien bat birsorkuntza sinbolizatuko luke, urak trantsizio indarrekin duen harremana dela eta (Cirlot, 1992: 98). Berriz jaio da Ezpeldoi eta plazara egiten du jauzi behingoz, lotsatu gabe, bere baitako nortasun lesbiarra errotu eta aldarrikatuz. Bere izaera lesbiarra onartu eta jendaurrean aitortzeak mugarri bat suposatuko du detektibearen bizitzan eta sentimendu kontraesankorrak sorraraziko dizkio:

Lesbiana naun (...) sintaxiaren soiltasunak ukitzen ninduen (..) mugatzen eta mugaz harainditzen ninduelako, harrotzen eta umiltzen, jendetzen hondarrean, ahalketik, gutxiestetik eta sortuz geroztik jasan nuen etengabeko deprezio egoeratik askatzen baininduen (Borda, 2007: 188).

Jaiotzetik geroztik estutu, mugatu eta lotzen zuten kateetatik askatu egin izanaren sentimendua ikus daiteke. Leherketa bat gertatzen da bere baitan, sumendi baten antzera; “Big-bang bat zen” (Borda, 2007: 214). Lehertu da, askatu da Bilbon eta lau haizetara aldarrikatuko du hemendik aurrera.

7. ONDORIOAK

Itxaro Bordaren *Jalgi hadi plazara* nobela aztertu ondoren, hainbat ondorio atera daitezke. Lehenik eta behin, ondorio nagusi modura, espazioak Ezpeldoirengan kontzientzia aldaketa bat eragiten duela argia da, eleberrian zehar egindako bazterretik erdigunerako ibilbidea eta Bilboko paisaia zehar eginiko joan-etorrietan aurkitutako sinboloak direla medio. Iparraldeko emakumeak aldaketa psikologiko nabariak bizi ditu Bilbon, espazioak eta inguruak eragindako garapen psikologiko baten emaitza direnak. Álvarez hitzetan, ibilbide bat egiten goazen heinean, espazioa bera aldatzen den modura, pertsonaia baten kontzientzia ere alda daiteke leku jakin batzuetatik mugitzen denean, hots, ibilbide bat egiten denean, muga geografikoak ez ezik, beste muga batzuk ere gurutzatzen dira (2002: 357). Gauzak horrela, Ezpeldoik Iparralde-Hegoalde muga geografikoa gurutzatzeaz gain eta Bilbon kokatzeaz gain, bere baitako beste muga batzuk ere gainditzen ditu. Hortaz, protagonistak espazioan zehar egindako ibilbidea bere kontzientzian zehar egiten ari den ibilbidearen isla izanen litzateke (Álvarez, 2002: 358).

Bigarrenik, Amaia Ezpeldoi mugako identitate bat genuke, mugako ahots bat, genero hierarkiei, nazionalismo hegemonikoen aginduei edota nahitaezko heterosexualtasunari erantzuten ez diena. Botere zentralen diskurtsoaren aurrean, frontera eta bazterreko lekutatze argia suposatzen du (Atutxa, 2010: 235). Isturitzeko harpeetan abiatu eta Bilboraino etengabe identitate baten bilaketan aritu ostean, Bilbon aurkitzen du nortasun hori konplexurik gabe azalarazteko esparrua.

Hirugarrenik, nortasun lesbiarraren plazaratzearekin oso lotuta, Euskal Herri ireki baten behararen aldarri ozena egiten da Bordaren eleberrian, Bilbo lez, munduko berrikuntzetara irekia egonen dena, mundu mailan tokia izanen duena, desberdina denari beldurrik izanen ez diona eta itxitasuna eta tradizioa atzean utziko dituen. Euskal Herri postmoderno bat azken finean. *Jalgi hadi plazara* euskaltzaletasunetik nortasun lesbiarrak zabaltzeko bideak proposatzen dituen nobela genuke (Retolaza, 2010: 137), Berlinen pareko hiriburueta alde egin beharrik izan gabe Euskal Herrian bertan gehiengoaz bestelako identitateak arto plazaratzeko gonbita mugako identitate baten eskutik.

Azkenik, esan gabe doa, Amaia Ezpeldoi eta eleberri hau maiz aztertuak izan badira ere, orain arteko azterketek ez dutela espazioa eta generoaren arteko harremanean

behar beste sakondu. Gure kasuan, bi hari tematiko hauek oso emankorrak suertatu dira azterketa hau aurrera eramateko. Argi geratu da bi kontzeptu hauen bidez hobe uler ditzakegula literatura lanak eta beraz, etorkizunera begira ezinbestean kontuan hartu beharreko ildo bat da.

8. BIBLIOGRAFIA

- Álvarez, N., 2002, *Espacios narrativos*, Leon, Leongo Unibertsitatea.
- Amendola, G., 2000, *La ciudad postmoderna: magia y miedo de la metrópolis contemporánea*, Madril, Celeste.
- Atutxa, I., 2010, “Itxaro Borda bestaldetik; mugako identitate baten sorrera”, in *Desira desordenatuak*, Donostia, Utriuque Vasconiae, 231-149.
- Butler, J., 2006, *Deshacer el género*, Bartzelona, Paidós.
- Cillero, J., 2000, *The Moving Target: A History of Basque Detective and Crime Fiction*, Reno, Nevadako Unibertsitatea.
- Cirlot, J.E., 1992, *Diccionario de símbolos*, Bartzelona, Labor.
- Esteban, I., 2007, *El efecto Guggenheim*, Bartzelona, Anagrama.
- Gabilondo, J., “Itxaro Borda: Melancholic Migrancy and the Writing of a National Lesbian Self”, in *ASJU*, Florida, 291-314.
- Kortazar, 2004/07/26, “Bilbo literaturan”, *El Pais*, <http://elpais.com/diario/2004/07/26/paisvasco/1090870808_850215.html> (2017/04/11).
- Lasarte, G., 2013, “Genero eta sexuaren berridazketa: Itxaro Borda eta polizia eleberrien kasua”, in *Euskera*, Bilbo, 753-783.
- Llorente, M., 2015, *La ciudad: huellas en el espacio habitado*, Bartzelona, Acantilado.
- Mumford, L., 2012, *La ciudad en la historia: sus orígenes, transformaciones y perspectivas*, Logroño, Pepitas de Calabaza.
- Olaziregi, M.J., 2002, *Euskal eleberraren historia*, Bilbo, Amorebieta-Etxanoko Udala.
- Retolaza, I., 2010, “Begirada lesbiarrak Itxaro Bordaren nobelagintzan”, in *Desira desordenatuak*, Donostia, Utriusque Vasconiae, 125-137.
- Susaeta, 2012/12/07, “Baditu, baina ez du”, *Berria*, <http://www.berria.eus/paperekoa/1483/018/001/2012-12_07/baditu_baina_ez_du.htm> (2017/04/11).